



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 23a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroan egiten den farmazia-gastuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (4. or.).
- Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (5. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017an garatuko duen politika orokorrari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. HHorren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Ubidea azpiegitura estrategiko bat dela Erriberarako. Mozioa erretiratzea (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen beharrezko aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturei buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (9. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu pertsona transexualen eskubideen babesa eta aitortza, batez ere transexual adingabeen eskubideena. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakume Legelarien IV. Goi Bileraren amaierako adierazpenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Burlatan bizi zen Blanca Marqués Andrés andrearen hilketa basatia. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko xedez langile teknikoak kontratatzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (13. or.).
- Galdera, lurzoru-klausulen gaineko erreklamazioak auzitegitik kanpo konpontzea errazteko aurreikusitako lankidetzaz neurriei buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017rako dauzkan helburuei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (14. or.).
- Galdera, 2017a bukatzen denean autonomia erkidegoen artean enplegu-sorreraren arloan azkena ez izateko Nafarroak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, enpleguak Nafarroan 2016an izan duen bilakaerari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Ondarearen gaineko zerga enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubideen tributu arloko tratamenduari dagokionez kentzeko aukerari eta horren gaineko balorazioari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Hezkuntzako kontseilariarengan daukan konfiantzari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Sodenak Davalor Salud enpresari emandako maileguen balorazioari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, irakasleek gizartean egiten duten lanaren aitortza egiteko kanpaina instituzional bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, irakasleen aurkako erasoez eta bultzatu edo hartu beharreko neurriez Hezkuntza Departamentuak egin beharreko azterlana Parlamentuari ez igortzeko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, “Itzarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (20. or.).
- Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (20. or.).
- Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (21. or.).
- Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (22. or.).
- Galdera, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektuari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko martxoaren 30eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean

sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Aipatu foru lege proposamena 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroan egiten den farmazia-gastuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroan egiten den farmazia-gastuari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Argi dago farmazia-gastua nabarmen handitu dela azken urteotan. Hala, 2016an aurreikusitako gastua 235.341.155 eurokoa zen, eta kreditugehikuntzak ia 4 milioioak izan ziren. Esan beharra dago aurreko ekitaldietan medikamentuetan egindako kreditugehikuntzak 40 milioi eurokoak izateraino heldu izan direla; esate baterako, 2012an.

2017rako aurrekontuan, 250 milioi eurotik gorako kontu-sailak jaso dira medikamentuetarako eta farmazia-prestazioetarako, Osasun Departamentuaren aurrekontu osoaren % 25 egiteraino une honetan, halako moduan non laguntza-kalitatea,

ikerketa edo prebentzioa hobetzera bideratu litezkeen baliabideen parte handi bat horretarako ezinduta geratzen baita.

Badira zenbait faktore objektibo igoera hori justifika dezaketenak; adibidez, onkologiako tratamendu berrien kostua, edo C hepatitisaren aurkako azken belaunaldiko antibiralena, eta abar, edo antidepresiboen eta antiololitikoen kontsumoaren igoera. Edonola ere, deigarria da zenbait zerbitzutan izandako igoera, eta gure ustez nahitaezkoa da zehatz-mehatz jakitea zer faktoreri zor zaien egoera hau, ikusteko ea farmazia-gastua handitzeak berekin dakarren osasunaren arloan emaitzak hobetzea.

Badakigu azken urteotan abian jarri dela medikamentu-kontsumoa arrazoizkoagoa izaten lagundu dezakeen neurriren bat –esaterako, errezeta elektronikoa edo medikamentu generikoak–, eta medikamentuen eta farmazia-produktuen erosketa zentralizatzeko joera egon dela; baina argi dago neurri horiek ez direla aski izan, kontsumoa eta gastua esponentzialki igotzen ari direlako.

Horregatik guztiagatik, parlamentari honek Nafarroan egiten den farmazia-gastuari buruzko honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, arlo horretako politika orokorraren alderdi hauek ezagutzeko: azken urteotako farmazia-gastuaren igoeraren azterketa xehakatu, hori eragin duten faktoreak, eta medikamentuen erabileraren arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean euts dakion hartutako eta aurreikusitako neurriak.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Marisa De Simón Caballerok, Izquierda-Ezkerako foru parlamentarien elkarteko Hezkuntzako eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntzako kontseilari Mendoza jaunarentzako jabeldura hau aurkezten du:

Jabeldura, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetako hezkuntza baliabideen antolamendua dela-eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Zioen azalpena:

Hezkuntzarako sarbidea kalitate nahiz ekitate balditzetan egiten dela, botere publikoek bermatu behar dute, batik bat hezkuntza-baliabide publikoen bidez.

Horrek esan nahi du hezkuntza-baliabideen antolamendu-egitura bat zehaztu beharra dagoela, hezkuntzarako sarbidea sustatuko duen curriculum-esparru batez gain, halako moduan non baliabide horiek herritar guztiei ikaspostu bat eskuratuko dieten, ikasleei ahalbidetuko diena hezkuntza-etapa bakoitzeko helburu orokorrak erdiestea, kalitate eta ekitate baldintza beretan. Alegia, Nafarroarako curriculumeko dekretuetan zehaztutako hezkuntza-xedeei erantzunen dien eskola-antolamendu bat taxutzea da helburua.

Hori dela-eta, eskola-antolamenduaren gaineo hezkuntza-plangintzari buruzko honako jabeldura hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari:

– Eskolatze orekatu bateranzko eta eskola-umeen ingurune sozialean txertaturiko eskola anitz bat eraikitzeranzko aurrerapausoak emateko eskolatze-politika. Zehazki, ikasleak onartzeko araudia eta ikastetxe publikoen eragin-eremua zehazten duen araudia.

– Eremuan eremuko eta tokian tokiko ikasleen eskolatze-beharrizanei erantzun bat emanen dien eskola-eraikuntzen politika.

– Ikasleen diskriminazio-mota oro ekiditeko itun-politika.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017an garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017an garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeen eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako jabeldura hau aurkeztu du:

Iragan abenduan %2,9 igo zen langabezia Nafarroan; alegia, langabezia igo zen lau erkidegoetan izandako igoerarik handiena eman zen bertan. Abenduarekin amaitu den urte honetan, gure herria osatzen duten gainontzeko erkidego ia-ia guztietan baino txikiagoa izan da foru erkidegoan langabeziaren jaitsiera, eta enplegu-sorrera moteldu egin da.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari enpleguaren arloan 2017an garatuko duen politika orokorrari buruzko jabeldura aurkeztu diogu.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzen eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen baitira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzen eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea Tafallako

geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Tafallako tren geltokia nabarmen narriatu da azken urteotan, herritarren aldetik tren geltokiko zerbitzu-eskaria handitu bidenabar. Erdi Aldea Trenaren Alde Elkar-teak ohartarazi zuen 2017ko urtarrilaren 1etik hasita txarteldegia ixtea eta geltokiko langileak kentzea aurreikusten zela.

Orain arte ez da aldaketarik gertatu geltoki horretan; izan ere, urtarrilaren 1ean langileak beren lanpostuetan zeuden, beren ohiko eginkizunak betetzen. Txarteldegia irekita dago, leihatilan txartelak saltzen dira eta zerbitzuei nahiz ordutegi buruzko informazio-eskariei erantzuten zaie.

Tafalla aldean 157 urteko tradizioa dauka trenaren erabilerak. Iruñarekiko komunikazioak eta prestazio handiko nahiz ibilbide luzeko trenetarako sarbide zuzena eta bermeduna funtsezkoak dira bertako herritarrentzat eta, bereziki, 44.000 erabiltzaileentzat (2015eko datuak).

Ziurgabetasun horren aurrean, eta ADIFen asmoetan Tafallako geltokirako murrizketak egoteak eragiten duen beldur egoera horri erantzutearren, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta RENFE eta ADIF enpresak premiatzen ditu arreta pertsonalizatuko zerbitzua ematen jarrai dezaten Tafallako tren geltokian, eta, halaber, bidaia-txartelak saltzeko leihatilak irekita jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta RENFE eta ADIF enpresak premiatzen ditu Tafallako geltokiak egun ematen dituen tren-zerbitzu guztiak hobetzeko plan bat abiaraz dezaten; bereziki, segurtasun-baldintzei dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuarekin negoziata dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea, eta bertako instalazioetan egin beharrekiko hobekuntzak egitea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan.

Prestazio ortoprotesikoan, osasun arloko produktuak erabiltzen dira gorputzaren egitura bat bere osotasunean edo hein batean ordezkatzeko edota haren funtzionamendua aldatu, zuzendu edo errazteko. Prestazioan sartzen dira gaixoaren bizi kalitatea eta autonomia hobetzeko beharrezkoak diren osagaiak.

Prestazio hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaintzen du, eta, ondorioz, prestazio ortoprotesikoen katalogoan ezarritako diru-

laguntzak ematen ditu. Katalogo hori da O-NOZek era guztietako material ortoprotesikorako eskaintzen dituen prestazioen gida bat.

Nafarroan urtean 4.000 pertsona inguruk eskatzen dute prestazio hori jasotzea.

Nafarroako Foru Komunitateko produktu ortoprotesikoen katalogoa 1998koa da; urtarrilaren 26ko 17/1998 Foru Dekretuak arautzen du, eta berori ez da ez gaurkotu ez berrikusi ere egin. Zenbatekoak pezetatan jasota daude; hortaz, zeharo zaharkituta dago, eta ez die behar bezala erantzuten laguntza horiek eskatzen dituzten pertsonen beharrazanei.

Produktu bakoitzari esleitutako tarifei dagokionez, horien prezioa ez da gaurkotu, ezta KPIa ere. Horrek esan nahi du alde handia dagoela produktuen prezio erreala eta horietako bakoitzari laguntza gisa esleitutako kopuruaren artean; izan ere, produktuen prezioa igo egin da kasu askotan, baina produktu horrengatik ematen den diru-laguntza ez da igo.

Produktu-katalogoa aztertuz gero, ikus dezakegu badirela jada erabiltzen ez diren gailu ortoprotesikoak. Halaber, merkatuan protesi berriak agertu dira, aurreratuagoak, erabiltzen dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzen dutenak, baina produktu horiek ez daude jasota katalogoan.

Halaber, uste dugu beharrezkoa dela pertsona batek protesia edo ortesia erosteko laguntza jasotzeko ezarritako prozedura aldatzea, laguntza horiek zorrotasun handiagoz kontrolatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestazio ortoprotesikoen katalogoa gaurkotu dezan eta berrikusi ditzan gailu bakoitzari esleitutako tarifak, katalogoan jasota dauden produktuak eta osasun arloko prestazio hori emateko prozedura.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 12an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Ubidea azpiegitura estrategiko bat dela Erriberarako.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen onar zezan Nafarroako Ubidea azpiegitu-

ra estrategiko bat dela Erriberarako, eta 2015eko abenduaren 18ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen beharrezanean aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturei buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Carmen Segura Moreno andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen toki entitateen beharrezanean aurre egiteko behar adina

diruz horni zezan Toki Azpiegiturei buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana eta 2016ko irailaren 30eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikaste-txeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikaste-

txeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Mozioa 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu pertsona transexualen eskubideen babesa eta aitortza, batez ere transexual adingabeen eskubideena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du pertsona transexualen eskubideen babesa eta aitortza, batez ere transexual adingabeen eskubideena eta pertsona horiek diskriminatuak ez izateko eta beren errealitatea ulertua izateko duten eskubidearena.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa agertzen die transexual adingabeen familiei eta Chrysallis elkarteak haur horien errealitatea ezagutarazteko abian jarri duen kanpainari.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du sexu- eta genero-bestelakotasuna errespetatzeko araudi egokia sustatzeko, bereziki adingabeei dagokienez.”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakume Legelarien IV. Goi Bileraren amaierako adierazpenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, egun izapidetzen ari den Konstituzio Auzitegiaren berritzea dela-eta –prozedura horretan, autonomia erkidegoetako legebiltzarrek proposamenak egin ahal dizkiote Senatuari–, bat egiten du honekin batera doan Emakume Legelarien IV. Goi Bileraren amaierako adierazpenarekin, zeina autonomia erkidegoetako parlamentuetako lehendakarien batzarrak (COPREPA) ere bere egiten baitu.

2. Nafarroako Parlamentuak genero berdintasunarekin duen konpromisoa berresten du, galarazi gabe legebiltzar bakoitzeko parlamentu-taldeek duten askatasuna bidezkozat jotzen dituzten hautagaitzak aurkezteko.”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Emakume Legelarien IV. Goi Bileraren amaierako adierazpena

“Madrilgo Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeak, Emakume Legelarien IV. Goi Bilerako

parte-hartzaile guztiekin batera, ikusirik beharrezkoa dela alor guztietan urratsak egiten jarraitzea benetako berdintasunezko gizarte bat lortzeko eta generoagatiko edozein tratu diskriminatzaile ezabatzeko, adierazten du:

LEHENA.- Hezkuntza dugu gizartearen funtsezko oinarrietako bat. Tratu- eta aukera-berdintasunaren sustapena, maila guztietan, ezagutza sortzen den alor guztietara zabaldu behar da. Gizaki guztien eskubideen errespetua, arraza, iritzia, sexua edota beste parametro bereizgarririk kontuan izan gabe, oinarritzko printzipio gisa irakatsi behar zaie haur eta gazteei; bai familian, bai ikastetxeetan eta eskura dituzten komunikabideetan. Halaber, saihestu behar dira guztion berdintasunaren aurkako jokamoldeen apologia edo edukien hedatzea.

BIGARRENA.- Gatazkak prebenitzeko eta era baketsuan konpontzeko hezkuntza-mota bat sustatu behar da, bai eta indarkeria ez erabiltzekoa bizitza pertsonalaren eta familia- eta gizarte-bizitzaren alor guztietan; bereziki, eskola-jazarpenaren kasuan. Ezinbestekoa da ahaleginak jartzea ikastetxeetako berariazko bizikidetzaz arazoak identifikazioan, azterketan eta ebaluazioan, gatazkak konpondu eta prebenitzeko esku-hartzea pla-

nifikatu eta koordinatze aldera. Balioetan oinarrituriko hezkuntzak eta jarduketa konprometitu, koherente eta irmoak, irakasle guztien eta familien aldetik, jarrera errespetugabe eta agresiboen zero tolerantziaren ideia komunean oinarrituak, prebentzioaren eragin positiboa areagotzen du eta eskola-jazarpenaren arriskua gutxitzen du.

HIRUGARRENA.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jarduera publiko nahiz pribatu guztietan jarraitu beharreko oinarritzko printzipioetako bat da, eta unibertsal bihurtu behar da, gizarte osoaren interes komuna baita. Mundu juridikoan gero eta emakume gehiago daude, bai abokatu-bulegoetan, bai alor judizialean, eta horrek aldaketak sustatzeko eta oraindik dauden oztopoak hausteko duen ardura ekartzen du; hain zuzen, kristalezko piramide hori haustekoa, egiazko berdintasunezko gizartearen lortze aldera zuzenbidearen defentsa eta aplikazioaren bitartez.

LAUGARRENA.- Errealitate horren ezagutza funtsezkoa da desberdintasunak sorrarazten dituzten baldintzak aldatzeko erabaki egokiak hartu ahal izateko. Bateragarritasunerako eskubideek dimentsio konstituzionala dute, eta horien aplikazioaren eta egikaritzearen bidez soilik, eta bereziki erantzunkidetasunaren bidez, ezartzen dira tresna juridikoak, emakumeei ardurazko postuak gizonekin berdintasunean eskuratzea historikoki galarazi dieten oztopoak gainditzeko.

BOSGARRENA.- Zuzenbidea berdintasunerako tresna eraginkorra da. Emakumeen eta neskatuen eskubideen aitortza eta errespetua, batez ere

era askotako desberdintasunei aurre egin behar dietenena, posible da botere judizial independente, prestatu eta giza eskubideekiko konpromisodun bat bada soilik; alegia, arazo sozialak eskubideurraketa gisa kokatzeko gai diren lege-ekintzaileak, eta gizarte zibilak ahalmena badu zuzenbide-prozesuek eskaintzen dituzten aukerak baliatzeko.

SEIGARRENA.- Emakumeen eta neskatuen kontrako indarkeria da gure garaian gehien zabaldua dagoen giza eskubideen urraketa, ohikoena eta pertsona gehieni eragiten diena. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea erronka bat da, gizarte erabat demokratiko eta giza eskubideekiko errespetua duenak bere egin behar duena, prebentzio-ekintzen sustapenaren eta detekzio goiztiarrerako baliabideen ezarpenaren bidez. Inplikaziorik gabe eta gizartearen sentsibilizaziorik gabe ezinezkoa izanen da genero indarkeriarekin amaitzea.

ZAZPIGARRENA.- Jurisdikzioaren eginkizun bermatzailerako beharrezkoa da giza eskubideak era zabalean interpretatzea. Askatasunaz gabeturiko emakumeen edo beren herrialdeetako babes faltagatik errefuxiatuak emakumeen ahultasun bereziak tratamendu berezia justifikatzen du, eta tratamendu horrek barne hartu beharko luke emakume horiek artatuko dituzten pertsonen prestakuntza berezia, egoera zehatz bakoitzerako jarduketa-protokoloa eta gizakiak diren aldetik duten duintasuna bermatuko duten espazio egokiak."

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Burlatan bizi zen Blanca Marqués Andrés andrearen hilketa basatia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Burlatan bizi zen Blanca Marqués Andrés andrearen hilketa basatia.

2. Gure elkartasuna eta maitasuna adierazten dizkiegu haren senide eta lagunei, eta, halaber, erakunde gisa eman ahal diegun laguntza guztia eskaintzen diegu.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du arbuiatu egiten duela gure gizartean gertatzen den indarkeria matxistaren adierazpen oro.

4. Halaber, berresten dugu indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko neurri instituzionalak

indartzeko eta sustatzeko dugun konpromisoa, bai eta prebentzio politikak sustatzeko konpromisoa ere, emakumeen segurtasun eta osotasunaren aurkako edonolako jokabide matxistak desagerrarazteko helburuarekin.

5. Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiei dei egiten diegu ditu indarkeria matxista arbuiatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

6. Adierazpen hau Burlatako Udalari helaraztea”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko xedez langile teknikoak kontratatzeari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko xedez langile teknikoak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 589.000 euroko kontu-sail bat onetsi da iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko xedez langile teknikoak kontratatzeko. Hori dela-eta, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak zer lanplangintza eta zer epe darabil horiek kontratatzeari begira?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, lurzoru-klausulen gaineko erreklamazioak auzitegitik kanpo konpontzea errazteko aurreikusitako lankidetzaneurrii buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, lurzoru-klausulen gaineko erreklamazioak auzitegitik

kanpo konpontzea errazteko aurreikusitako lankidetzaneurrii buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak orain dela gutxi emandako epai bidez deklaratu da zoru-

klausulen deuseztasuna eta bidegabeki ordaindutako zenbatekoak atzeraeraginez itzuli beharra. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri nahi ditu nafarrekiko eta kontsumitzaile-elkarteekiko lankidetzari begira, kaltetutako pertsonak aurkezten dituzten erreklamazioak auzitegitik kanpo konpontzea errazteko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017rako dauzkan helburuei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak enpleguaren arloan 2017rako dauzkan helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Talde sozialista poztu egiten da langabeziari dagokionez Espainian eta Nafarroan iaz izandako

datuekin. Enplegua hazi egin da Espainian eta Nafarroan, gobernuak kolore ezberdinekoak izanda ere. Egia da joera positiboa foru erkidegoan baino handiagoa izan zela Espainian. Halatan, Espainian ehuneko hiru baino gehiago igo zen Gizarte Segurantzaren izena emandako kopurua; Nafarroan, berriz, ehuneko bi baino gehiago. Edozein modutan ere, enplegua aurkitu dutenentzat izan da onura.

Urteko balantze horretatik kezkatzen gaituena da abenduan gertatutakoa. Laparra lehendakariordea ere kezkatuta dago, adierazpen batzuetan esan zuenaren arabera. Gauza jakina da industriak daukan pisua dela-eta abendua ez dela Nafarroarentzat ona, baina hori ezin da izan kezkatuta ez egoteko aitzakia bat.

Galderaren testua:

Gobernuak zer helburu darabil 2017rako enpleguari begira? Gizarte eragileak gogoan izanen al ditu sortzen den enplegua kalitatezkoa izan dadin? Enplegu-hitzarmenik sinatuko al du haiekin?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, 2017a bukatzen denean autonomia erkidegoen artean enplegu-sorreraren arloan azkena ez izateko Nafarroak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, 2017a bukatzen denean autonomia erkidegoen artean enplegu-sorreraren arloan azkena ez izateko Nafarroak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, lehendakariorde eta Eskubide Sozialetako kontseilari Miguel Laparra jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak erabakiren bat hartzeko asmorik al du, 2017a bukatzen denean Nafarroa autonomia erkidegoen artean enplegu-sorreraren arloan azkena ez izateko, 2016an gertatu den bezala?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer konponbide dabil gogoan Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako Institutuarentzat?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, enpleguak Nafarroan 2016an izan duen bilakaerari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, enpleguak Nafarroan 2016an izan duen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu enpleguak Nafarroan 2016an izandako bilakaerari buruz?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Ondarearen gaineko zerga enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubideen tributu arloko tratamenduari dagokionez kentzeko aukerari eta horren gaineko balorazioari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Ondarearen gaineko zerga enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubideen tributu arloko tratamenduari dagokionez kentzeko aukerari eta horren gaineko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikitako ondasun eta eskubideen tributu-arloko tratamenduari dagokionez ondarearen gaineko zerga kentzeko aukera eta horren gaineko balorazioa.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Hezkuntzako kontseilariarengan daukan konfiantzari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Hezkuntzako kontseilariarengan daukan konfiantzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Oposizioagile batek LEParen aurka aurkeztutako errekursoari ez erantzunez Hezkuntza Departamentuak sortu duen segurtasun juridikorik eza ikusita, Mendoza kontseilariarengan konfiantza izaten jarraitzen al duzu?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Sodenak Davalor Salud enpresari emandako maileguen balorazioari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Sodenak Davalor Salud enpresari emandako maileguen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Sodenak Davalor Salud enpresari emandako maileguez?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Prestazio Handiko Trenari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Prestazio Handiko Trenari dagokionez ustez egiten duen apustua Iruña eta Gasteizen arteko tren-lotura bihurtu al da?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zergatik urratu du legezketasuna zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenarekin?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, irakasleek gizartean egiten duten lanaren aitortza egiteko kanpaina instituzional bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, irakasleek gizartean egiten duten lanaren aitortza egiteko kanpaina instituzional bat ez egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zergatik ez du egin kanpaina instituzional bat, irakasleek gizartean egiten duten lana eta guztiok zor diegun errespetua aitortzeko?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, irakasleen aurkako erasoez eta bultzatu edo hartu beharreko neurriez Hezkuntza Departamentuak egin beharreko azterlana Parlamentuari ez igortzeko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, irakasleen aurkako erasoez eta bultzatu edo hartu beharreko neurriez Hezkuntza Departamentuak egin beharreko azterlana Parlamentuari ez igortzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zergatik ez dio Parlamentuari igorri irakasleen aurkako erasoak eta horiei dagokienez bultzatu edo hartu behar zituen neurriak direla-eta egin behar zuen azterlana?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroako parlamentarioak, Legebiltzarreko araudiak dioenari

jarraiki, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2016. urteko aurrekontuetan, Osasun Departamentuari dagokion atalean, honako partida onartu zen: 540004 52800 1220 311100 Programas prioritarios y estrategias de listas de espera.

Partida berria izanda, eduki malgua eta zabala izan dezakeena, honako galderak egin dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

– Zein izan da partida honen erabilpen zehatza?

– Zein izan da partida honen exekuzio zehatza?

Antzeko galdera egin genion Nafarroako Gobernuari 2016ko irailaren 28an, eta urriaren 27an jasotako erantzunean esaten zitzaigun ezin zela estimazio zehatzik egin partidaren behin-betiko exekuzioaz. Orain, 2016. urtea amaituta, Osasun Departamentua erantzun zehatzagoa emateko moduan egonen da, zalantzarik gabe.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako Tuterarako kontu-sailetako zeintzuk handitu dira? Zer hobekuntza aurreikusten dira aurrekontu-handitze horiek ukitutako departamentuetako zerbitzuetan?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako Tafallarako kontu-sailetako zeintzuk handitu dira? Zer hobekuntza aurreikusten dira aurrekontu-handitze horiek ukitutako departamentuetako zerbitzuetan?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako Lizarrarako kontu-sailetako zeintzuk handitu dira? Zer hobekuntza aurreikusten dira aurrekontu-handitze horiek ukitutako departamentuetako zerbitzuetan?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzarrak mozio bat onetsi zuen, Josefina Arregui zentroarentzat eskatzen zuena, alde batetik, erreferentziazko zentro gisa egindako lanaren aitortza; eta, beste alde batetik, O-NOZen sare publikoaren barruan egonkortasuna ematea edo egungo ituna handitzea, haren bideragarritasuna ziurtatzeko.

Zer urrats egin dira edo egiten ari dira mozioa osorik nahiz hein batean bete dadin, kontuan hartuta harentzako kontu-saila handitu dela?

Itun berri bat sinatuko al da, halako moduan non egonkortasuna eta bideragarritasuna ziurtatuko baitira?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektuari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentuko-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren abenduaren 12ko 384/2016 ebazpenak premiazko esku-hartze arkeologikoa egite-

ko baimena eman du, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 kV Itxaso-Orkoien 2” proiektua dela-eta. Proiektua Red Eléctrica Españolak sustatua da, eta linea hori osatzen duten 138 euskarrietako 31 handitzea ekarriko du. Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Arakil, Berriobeiti eta Orkoien udalerrietan kokatzen dira euskarriak, hain zuzen ere. Ebazpenak dienez, bestalde, proiektuak ingurumen inpaktuaren ebaluazioa eskatuko du (“eboluzioa” jatorrizko testuan), eta horren zati bat izanen da, hain zuzen ere, Ondare Arkeologikoari buruz egin beharreko azterketa.

– Aipatutako proiektuaren prozedura administratiboari dagokionez (“Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 kV Itxaso-Orkoien 2”), zein egoeratan dago une honetan proiektua, eta zein dira gelditzen diren urratsak?

– Proiektuaren ingurumen inpaktuari dagokionez, zein da zehazki erabiliko den prozedura administratiboa? Eta zein dira azterketa horren hasiera- eta bukaera-datei buruz Nafarroako Gobernuak duen aurreikuspena?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 12a

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

